




**EUSKADIREN ETA ESTATUAREN ARTEKO  
HARREMAN KOMERTZIALAK**

Eskualdeko ekonomia batek kanpoaldearekin izan ditzakeen trukeak estu lotuta daude eskualdearen tamainarekin, Estatuko esparruetan duen integrazioarekin eta estatuz haragoko batasunetan duen integrazioarekin. Tamainak badu, beraz, garrantzia; izan ere, zenbat eta txikiagoa izan ekonomia bat, orduan eta irekiago egon behar du kanpoaldera, espezializatuagoa baitago eta, horren ondorioz, inportazio eta esportazioek bertako Barne Produktu Gordinaren gaineko kuota handitzen baitute. Estatuaren esparruetan integratua egoteak ere badu garrantzia, lurralde batek estatu hori osatzen duten gainerako lurraldeekin dituen harreman komertzialak handiagoak baitira bi estaturen artean daudenak baino.

Elkarren arteko mendekotasuna handiagoa da, esparru bera partekatzen dutelako, eta esparru hori estatuak bere mugaz haragoko batasun komertzial, ekonomiko edo monetarioetan duen integrazioaren baitan ere badagoelako, eta, kasu honetan, estatuaz haragoko integrazioak ere harreman komertzialak baldintzatzen dituelako; izan ere, trukerako hesiak desagertzean, merkataritza sustatzen da, hau da, lehen ez ziren transakzioak sortzen dira eta merkataritza desbideratu egiten da, hots, eskualdearteko merkataritza-fluxuen ordeztasun nazioarteko fluxuak finkatzen dira.



Iturria: Eustat, Hiruhileko Kontu Ekonomikoak.

Ikerlan honetan EAEko ekonomiak Estatuarekin dituen harreman komertzialak aztertzen dira, horiek baitira harreman ekonomikoen adierazle nabarmenenak.

Estatuarekiko harreman komertzialei zehazki heldu aurretik, komeni da EAEko ekonomiak kanpoalde osoarekin dituen trukeen testuinguruan kokatzea harreman horiek. Horri dagokionez, lehenik eta behin, nabarmendu behar da EAEko ekonomia kanpora irekita dagoela hein handi batean: 2014an kanpora egindako salmenta guztiak barne-produktu gordinaren % 67 izan ziren, eta inportazioak barne-produktu gordin horren % 70 baino gehiago.


Kanporako begirada horren barnean, EAEko merkataritzak Estatuko merkatuarekin harreman adierazgarria izan du tradizionalki. Hala, 1995-2010 epealdian Estatura bideratutako esportazioek % 56ko

batez besteko portzentajea izan zuten, eta gainerako % 44a atzerrira bideratuek.

Ondasun eta zerbitzuen eskualdearteko merkataritzak nazioartekoaren aldean zuen nagusitasun hori aldatu egin zen 2009ko atzeraldi handiaren ondorengo urteetan. Horren ondorioz, merkataritza-fluxu guztietan moteltasuna gailentzeaz gain, alde batetik, egoera dinamikoagoa erakusten zuten nazioarteko salmentek, eta Estatukora bideratutako salmenten gaintik kokatu ziren 2011n; izan ere, orduan nazioarteko salmentak salmenta guztien % 51 izan ziren, eta 2013an % 53ra igo zen portzentaje hori.

Esportazio-merkatuen garrantziari dagokion aldaketa horrez gain, beste aldaketa garrantzitsu bat ere jazo zen, saldo komertzialekin lotuta; izan ere, Estatuarekiko saldo komertzial negatiboa nabarmen areagotu zen bitartean, nazioarteko merkatuekiko erregistratzen den soberakin positiboa areagotu egin zen.

Estatura bideratutako esportazioen kuota Barne Produktu Gordinaren % 40tik % 30era murriztu arren, adierazgarria da oraindik esportazio-merkatu bakarra, Estatura bideratutakoa, gainerako herrialde guztietara bideratutako esportazioaren pare egotea ia, eta are adierazgarriagoa da inportazioen kasuan merkatu horrek munduko gainerako herrialdeekiko duen abantaila Barne Produktu Gordinaren hamar punturen inguruan egotea.



Iturria: Eustat, Kontu Ekonomikoak.

Bestalde, adierazi behar da, Kontu Ekonomikoen arabera, EAEko ekonomiak gaur egun desoreka erakusten duela balantza komertzialari dagokionez, 2013an Barne Produktu Gordinaren % 3,8an kokatuta.

Bestalde, adierazi behar da, Kontu Ekonomikoen arabera, EAEko ekonomiak 2013an saldo positiboa erakusten duela atzerriarekiko balantza komertzialari dagokionez (Barne Produktu Gordinaren % +7,5a) eta saldo negatiboa Estatuarekiko balantza komertzialari dagokionez (Barne Produktu Gordinaren % -11,4a). Egoera honen arrazoia honako hau da: 2013an Estatura bideratutako erosketak (27.798 miloi euro) salmentak (20.486 milioi euro) baino handiagoak izan ziren; beste alde batetik, atzerrira bideratutako salmentak (23.052 milioi euro) erosketak (18.077 miloi euro) baino handiagoak izan ziren.

Bigarren grafikoan eta 1 zenbakidun koadroan, Barne Produktu Gordinari dagozkion datu eta joerak laburbiltzen dira. Hala, aipatu grafikoan eta koadroan Estatura bideratutako ondare eta zerbitzuen esportazioak behera egin duela ikus daiteke Barne Produktu Gordinaren bilakaeraren aldean, aztertutako epealdi osoan zehar: 1995-2013.

Halaber, nazioarteko esportazioen kasuan, igoera iraunkorra ikusten da, 2009ko beherakada puntuala salbuetsita, eta goranzko profil hori nazioarteko inportazioetan ere ikus daiteke. Bitartean, Estatuaren inportazioena da egonkortasun handiena erakusten duen aldaera.

1. koadroa. EUSKADIKO ONDARE ETA ZERBITZUEN MERKATARITZARI BURUZKO  
DATUAK 1995-2013

	ESPORTAZIOREN JOMUGA		INPORTAZIOAREN JOMUGA		SALDOA	
	ESTATUA	ATZERRIA	ESTATUA	ATZERRIA	ESTATUA	ATZERRIA
<i>Miloi euro</i>						
Batez bestekoa 1995-01	14.483/3	10.533/1	17.054/3	8.378/2	-2,571,0	2,154,9
Batez bestekoa 2002-09	21,067,2	17,324,6	26,258,6	15,703,1	-5,191,4	1,621,5
2010	22,069,7	20,003,5	28,238,3	17,481,0	-6,168,5	2,522,5
2011	22,150,4	23,445,5	29,240,6	19,588,4	-7,090,1	3,857,0
2012	20,725,7	23,254,1	28,656,0	17,811,1	-7,930,3	5,442,9
2013	20,485,5	23,051,9	27,998,1	18,076,8	-7,512,6	4,975,0
<i>% BPGarekiko</i>						
2010	32.6	29.6	41.8	25.9	-9.1	3.7
2011	32.6	34.5	43.0	28.8	-10.4	5.7
2012	31.0	34.8	42.9	26.7	-11.9	8.2
2013	31.0	34.9	42.4	27.4	-11.4	7.5
<i>Aldaketa-tasak</i>						
2011	0,4	17,2	3,5	12,0		
2012	-6,4	-0,8	-2,0	-9,1		
2013	-1,2	-0,9	-2,3	1,5		

Iturria: Eustat, Kontu Ekonomikoak.

EAEko esportazioen kasuan, itxura denez, ordezkate-dibertsifikatze fenomenoak gertatu zen aztertutako epealdian. Horri esker, Espainiako merkatuan izandako beherakada nazioarteko beste zenbait merkatuetara begira izandako igoerarekin orekatu zen. Krisialdiarekin joera hori indartu egin dela dirudi. Inportazioak ere igo egin ziren nazioarteko merkatuei so.

EAEko merkataritzak Estatuarekin duen harreman tradizionala, nagusiki, XX. mendearen zatirik handienean Espainiako ekonomia kanpoaldearekiko izandako baldintzetan oinarritzen da. Egoera hori bertan behera geratu zen Espainiako ekonomia liberalizatu zenean, hain zuzen, 1986. urtean Europako Ekonomia Erkidegoan sartu zenean eta, ondoren, Europako Diru Batasunean sartu zenean, 1999an. Europako esparru bat egonik, araudi bera eta zenbaitetan kanpora begirako baterako hesi perfektionistak egonik, historiaren joera hori mantendu egin da merkataritzari dagozkion zenbakietan. Haatik, hori horrela izanik ere, eragin hori ezin da ekonomiek jarraitzen duten ibilbidearen barnean gertaera iraunkor eta independente modura hartu, batez ere, integrazio-prozesuak egonik.

EAEko ekonomiaren eta Estatuarekin duen harreman komertzialen ezagutzeko, interesgarria da guztizko fluxuez gain, jarduera-adar bakoitzerako horien adierazgarritasuna aintzat hartzea.

Horretarako, hirugarren grafikoan 2010-2012 epealdirako ondareen trukean gailentzen diren hamasei adarretako esportazioen bilakaera jasotzen da. Adar horiek barneko produktuekiko duten


adierazgarritasuna ere adierazten da. Informazio hori Eustat erakundeak argitaratutako EAEko ekonomiaren datuetatik jaso da.







Horiek aztertuta bi gako garrantzitsu ikusten dira: bata egiturazkoa eta bestea esportazioen egungo joerei buruzkoa. Lehenengoari helduz, ikusten da EAEko adar esportatzaile nagusiak nazioarteko merkatura begira daudela Estatura begira baino gehiago. Era berean, adar horietako esportazioek barneko ekoizpenaren zati garrantzitsuena hartzen dutela ikusten da. Bigarrenari helduz, ikusten da adar askotan murriztu dela eskualdearteko esportazioen garrantzia eta areagotu egin dela nazioartera bideratutako esportazioen garrantzia. Horien artean hauen portaera nabarmendu daiteke: *Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, Makineria eta ekipamendu mekanikoa eta Garraiorako materiala*. Hain zuzen, adar horiek jarduera gakoak dira EAEko ekoizpen-ehunaren espezializazioaren barnean.


Adar ezberdinetako esportazio nahiz inportazioei buruzko datuak 2a eta 2b koadroetan zehazten dira.




3. grafikoa. EAE-KO ESQUALDEARTEKO ETA NAZIOARTEKO ESPORTAZIOEN  
**BILAKAERA 16 JARDUERA-ADARREN ARABERA A1-A16**  
*Barneko ekoizpenaren %*





industria	
	
A9- Kautxuaren eta lehengaien industria	A10- Produktu mineral ez metalikoen industria
	
A11- Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa	A12- Makineria eta ekipamendu mekanikoen fabrikazioa
	
A13- Material eta ekipamendu elektriko, elektronikoa eta optikoa	A14- Garraiorako materialen fabrikazioa



A15- Industria anitza



A16- Energia



Iturria: Eustat, Input-Output taula.

2a koadroa. EUSKADIKO JARDUERA-ADARRETA KO ESPORTAZIOAK 2010-2012

Milioi euro	2010		2011		2012	
	ESTATUA	ATZERRIA	ESTATUA	ATZERRIA	ESTATUA	ATZERRIA
A1, Nekazaritza, basogintza eta arrantza	67	56	66	65	68	70
A2, Erauzketa-industriak, kokeriak, finketa eta erregai nuklearrak	1508	1631	2364	2106	2138	1835
A3, Nekazaritzako elikagaien industria	1734	514	1681	628	1503	778
A4+A5, Ehungintzaren, jantzigintzaren eta larruaren industria	59	143	42	159	44	136
A6-, Zuraren eta kortxoaren industria	169	47	158	61	159	55
A7, Paperaren, edizioaren eta arte grafikoen industria	587	505	561	544	533	520
A8, Industria Kimikoa	548	472	528	510	448	479
A9, Kautxuaren eta lehengaien industria	768	1478	829	1716	682	1633
A10, Produktu mineral ez metalikoen industria	229	357	157	374	148	380
A11, Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa	4077	5239	3921	6119	3577	5890
A12, Makineria eta ekipamendu mekanikoen fabrikazioa	1131	2396	1014	2872	929	3005
A13, Material eta ekipamendu elektriko, elektronikoa eta optikoa	830	872	771	913	653	922
A14, Garraiorako materialen fabrikazioa	1411	2782	879	3457	889	3567
A15, Industria anitzak	455	178	310	187	316	186
A16, Energia elektrikoaren, gasaren eta uraren ekoizpena eta hedapena	1430	178	1674	130	1654	151
<b>GUZTIRA A1-A16</b>	<b>15002</b>	<b>16849</b>	<b>14954</b>	<b>19841</b>	<b>13742</b>	<b>19607</b>
A17- Eraikuntza	0	0	0	0	0	0
A18- Merkataritza	2000	483	2023	551	1997	566
A19 Garraioa	991	826	998	887	970	878
A20 Ostalaritza	0	0	0	0	0	0
A21 Telekomunikazioak eta posta	334	44	322	45	304	51
A22 Zerbitzu finantzario eta profesionalak	2493	704	2453	709	2396	745
A23 Enpresa eta higiezinatarako zerbitzuak	168	0	189	0	219	0



A24 Zerbitzu Publikoak	0	0	0	0	0	0
A25 Bestelako zerbitzuak	119	10	90	4	91	8
A26 Zerbitzu pertsonalak	6	0	5	0	5	0
<b>Guztira A17-A26</b>	<b>6112</b>	<b>2067</b>	<b>6080</b>	<b>2196</b>	<b>5982</b>	<b>2249</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>21114</b>	<b>18916</b>	<b>21034</b>	<b>22037</b>	<b>19724</b>	<b>21856</b>

*Iturria: Eustat, Input-Output taula.*

2b koadroa. EUSKADIKO JARDUERA-ADARRETAKO INPORTAZIOAK 2010-2012

Milioi euro	2010		2011		2012	
	ESTATUA	ATZERRIA	ESTATUA	ATZERRIA	ESTATUA	ATZERRIA
A1, Nekazaritza, basogintza eta arrantza	1029	397	1133	469	1201	400
A2, Erauzketa-industriak, kokeriak, finketa eta erregai nuklearrak	1268	5192	1564	6266	1524	5535
A3, Nekazaritzako elikagaien industria	2385	658	2524	697	2704	723
A4, A5, Ehungintzaren, jantzigintzaren eta larruaren industria	743	348	714	361	740	344
A6-,Zuraren eta kortxoaren industria	44	73	52	63	74	55
A7, Paperaren, edizioaren eta arte grafikoen industria	418	326	414	351	453	309
A8, Industria Kimikoa	1983	893	1726	1272	1643	1214
A9, Kautxuaren eta lehengaien industria	791	239	837	252	798	241
A10, Produktu mineral ez metalikoen industria	1068	130	828	161	767	153
A11, Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa	2468	2716	2432	3244	2584	2893
A12, Makineria eta ekipamendu mekanikoen fabrikazioa	753	1243	942	1231	951	1265
A13, Material eta ekipamendu elektriko, elektronikoa eta optikoa	1385	943	1298	950	1281	888
A14, Garraiorako materialen fabrikazioa	1768	821	1788	807	1807	844
A15, Industria anitzak	463	266	539	284	559	258
A16, Energia elektrikoaren, gasaren eta uraren ekoizpena eta hedapena	874	1026	1046	1036	1054	862
<b>GUZTIRA A1-A16</b>	<b>17438</b>	<b>15272</b>	<b>17836</b>	<b>17444</b>	<b>18139</b>	<b>15984</b>
A17- Eraikuntza	0	0	0	0	0	0
A18- Merkataritza	2864	79	2976	81	2821	75
A19Garraioa	1378	166	1688	150	1642	134
A20 Ostalaritza	307	34	299	35	307	36
A21 Telekomunikazioak eta posta	539	42	503	43	533	41
A22 Zerbitzu finantzario eta profesionalak	1709	227	1720	231	1462	221
A23 Enpresa eta higiezineterako zerbitzuak	739	45	722	40	715	49

A24 Zerbitzu Publikoak	0	0	0	0	0	0
A25 Bestelako zerbitzuak	128	6	139	8	147	8
A26 Zerbitzu pertsonalak	11	0	11	0	13	0
<b>Guztira A17-A26</b>	<b>7674</b>	<b>599</b>	<b>8059</b>	<b>587</b>	<b>7640</b>	<b>564</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>25112</b>	<b>15870</b>	<b>25895</b>	<b>18031</b>	<b>25778</b>	<b>16548</b>

Iturria: Eustat, Input-Output taula.

Finean, EAeko ekonomiaren ezaugarri historikoak izan dira, batetik, kanpoalderako joera handia izatea Estatuarekiko merkataritza-fluxuek baldintzatuta, eta, bestetik, kanpoaldera begira soberakin-kokagunea izatea.

Desoreka komertziala, funtsean, ondareen trukean gertatzen da, eta adar jakin batzuen portaeraren ondorio da: *Nekazaritza, Nekazaritzako elikagaien industria, industria kimikoa, industria ez metalikoa, Material eta ekipamendu elektriko eta elektronikoa* (ikusieranskina).

Estatuarekiko harreman komertziala garapen historikoko arrazoien ondorio da. Garapen horren arabera, Estatuaren barneko trukeen intentsitatea handiagoa da nazioartekoena baino, etxeko alborapen ere izendatu izan dena justifikatuz.

Hala ere, laurogeiko hamarkadaren amaieran egoera hori aldatzen hasi zen, eta laurogeita hamarreko hamarkadan ere abian jarraitu zuen aldaketak. Gainera, aldaketa horren ondorioz, saldoen banaketa ezberdina izan da Estatuari (gero eta defizit handiagoa) eta atzerriari (gero eta superabit handiagoa) begira.

Ikuspegi sektorialetik so, EAeko adar esportatzaile nagusiak nazioarteko merkatuetara begira zeuden Estatuari begira baino gehiago, eta adar horietako esportazioek barneko ekoizpenaren zati garrantzitsuena hartu dute. Gainera, deskribatutako joera-aldaketa orokor horien barnean, merkatuan ere aldaketa gertuta da, atzerriko merkatuen alde. Hori adar hauetan nabarmentzen da nagusiki: *Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, Makineria eta ekipamendu mekanikoa eta Garraiorako materiala.*



**Eranskina: EUSKADIKO KANPO MERKATARITZA ADARREN ARABERA**

**1. Euskadiko kanpo merkataritza 2012an Input-Output taulen arabera (Jomuga-taula jatorri geografiko, produktu eta adarraren arabera)**

<i>milioika eurotan</i>	Esportazioak		Inportazioak		Saldoa	
	Estatua	Atzerria	Estatua	Atzerria	Estatua	Atzerria
1, Nekazaritzako produktuak	10,6	30,6	735,0	252,0	-724,4	-221,4
2, Abeltzaintzako produktuak	35,2	3,4	149,1	12,7	-113,8	-9,3
3, Basogintzako produktuak	15,9	0,8	82,2	3,8	-66,3	-3,0
4, Arrantza eta akuikulturako produktuak	5,8	34,9	234,3	131,9	-228,5	-97,0
5- Ikatzak	0,0	0,0	51,3	52,4	-51,3	-52,4
6, Petrolio gordina	0,0	0,0	0,0	4395,1	0,0	-4395,1
7, Gas naturala	0,0	0,0	902,0	469,3	-902,0	-469,3
8, Mineral metalikoak	0,0	0,0	59,3	35,2	-59,3	-35,2
9, Mineral ez metalikoak	16,2	16,8	291,6	45,1	-275,4	-28,3
10, Haragia eta haragi-produktuak	12,2	20,2	735,9	68,6	-723,6	-48,4
11, Arraina kontserban, prestatua eta izoztua	224,9	266,2	85,7	219,2	139,3	47,0
12, Esnea eta esnekiak	199,4	32,0	290,6	62,2	-91,2	-30,2
13, Ogia, errotaritza-produktuak eta elikadura-pasta	184,8	59,2	286,4	34,4	-101,6	24,8
14, Bestelako elikadura-produktuak	173,3	209,7	600,9	270,1	-427,6	-60,4
15, Animalien elikadurarako produktuak	256,4	31,0	23,7	2,4	232,7	28,6
16, Edari alkoholdunak	228,1	152,7	323,6	36,3	-95,5	116,5
17, Alkoholik gabeko edariak	223,5	6,8	227,7	29,4	-4,1	-22,7
18, Tabako manufacturatua	0,0	0,0	129,7	0,0	-129,7	0,0
19, Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoak	44,0	136,2	739,8	343,9	-695,8	-207,7
20, Zura eta kortxoak	159,1	54,8	74,3	54,6	84,8	0,2
21, Paper-pasta eta kartoia	257,0	379,4	101,9	265,7	155,1	113,6
22, Paper- eta kartoi-produktuak	186,7	65,9	219,4	42,8	-32,7	23,0
23, Arte grafikoak eta euskarri grabatuak	89,6	74,5	131,7	0,3	-42,1	74,2
24, Kokea eta petrolioaren produktu finduak	2122,2	1817,9	219,8	538,2	1902,4	1279,7
25, Oinarrizko produktu kimikoak	130,8	278,1	425,2	794,0	-294,4	-515,9
26, Azken kontsumoko produktu kimikoak	209,1	170,4	391,9	273,8	-182,8	-103,4



27, Farmazia-produktuak	108,4	30,4	826,3	146,3	-717,8	-115,9
28, Kautxuzko produktuak	294,0	1225,7	433,2	74,1	-139,2	1151,6
29, Plastikozko produktuak	388,4	407,2	364,5	166,7	23,8	240,5
30, Beira eta beirazko produktuak	43,6	228,0	98,7	49,3	-55,1	178,7
31, Zementua, karea eta igeltsua	21,0	28,9	259,5	3,5	-238,5	25,4
32, Bestelako produktu mineral ez metalikoak	83,4	123,4	408,7	99,8	-325,3	23,6
33, Siderurgiako produktuak	905,8	2656,4	1331,6	1483,8	-425,8	1172,6
34, Metal preziatuak eta ez burdinazkoak	119,5	566,4	593,8	640,3	-474,3	-73,9
35, Metalen galdaketa	276,5	760,0	171,1	11,2	105,4	748,7
36, Eraikuntza metalikoko produktuak	226,4	200,2	142,1	100,4	84,2	99,7
37, Forja eta estanzazioa	574,3	466,8	64,9	43,6	509,4	423,2
38, Metalen tratamendua	149,5	31,9	8,3	19,6	141,2	12,3
39, Ingeniaritza mekanikoa	739,4	152,2	37,0	14,1	702,4	138,1
40, Bestelako produktu metalikoak	585,8	1056,4	235,3	580,0	350,6	476,4
41, Material informatiko, elektronikoa eta optikoa	128,8	164,7	424,7	342,8	-295,9	-178,1
42, Material eta ekipamendu elektrikoa	524,2	757,0	856,1	545,1	-331,9	211,9
43, Etxeko gailuak	168,0	256,8	100,9	106,8	67,1	150,0
44, Makineria	693,7	2061,8	691,8	1028,0	1,9	1033,8
45, Makina-erreminta	67,2	686,7	158,2	130,6	-91,0	556,1
46, Motordun ibilgailuak eta horien piezak	298,0	2333,1	1245,7	551,9	-947,7	1781,1
47, Itsas eraikuntza	226,6	94,9	37,5	22,4	189,1	72,4
48, Tren materiala	152,3	801,9	423,5	74,1	-271,2	727,8
49, Aireontziak	206,4	275,6	14,9	101,8	191,6	173,8
50, Garraiorako bestelako materiala	5,7	61,8	85,1	94,1	-79,4	-32,3
51, Altzariak	155,7	79,7	145,1	51,2	10,6	28,5
52, Bestelako produktu manufakturuak	36,5	88,8	246,1	130,2	-209,6	-41,4
53, Makineria eta ekipamenduen konponketa eta instalazioa	124,3	17,9	167,5	76,7	-43,2	-58,8
54, Energia elektrikoa	739,2	15,3	109,9	10,6	629,3	4,6
55, Gasa banatzeko zerbitzua	703,9	0,0	36,8	0,0	667,1	0,0
56, Ur naturala	0,0	0,0	1,1	0,0	-1,1	0,0
57, Hondakin-urak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
58, Hondakinen kudeaketa	210,5	136,0	906,0	851,7	-695,5	-715,7
59, Eraikingintza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0



60, Ingeniaritza zibileko obrak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
61, Eraikuntza espezializatua	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
62, Ibilgailuen salmenta eta konponketa	12,0	60,1	173,0	5,6	-161,0	54,4
63, Handizkako merkataritza	1985,0	505,8	2648,1	69,8	-663,1	436,0
64, Txikizkako merkataritza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
65, Tren garraioa	0,0	0,0	101,8	2,2	-101,8	-2,2
66, Bidaiarien lurreko bestelako garraioak	9,0	0,0	41,0	1,0	-32,0	-1,0
67, Salgaien lurreko bestelako garraioak	339,3	177,1	513,8	75,5	-174,5	101,6
68, Itsas garraioa	7,1	25,8	30,9	9,0	-23,9	16,8
69, Aireko garraioa	69,1	45,1	402,5	23,7	-333,4	21,5
70, Garraioarekin lotuak	542,8	630,1	501,9	22,5	41,0	607,6
71, Posta eta mezularitza	2,7		50,3	0,2	-47,7	-0,2
72, Alojamentua	0,0		252,2	31,4	-252,2	-31,4
73, Jakiak eta edariak	0,0		54,8	4,3	-54,8	-4,3
74, Edizioa	77,8	33,7	144,1	12,1	-66,3	21,6
75, Ikus-entzunezko zerbitzuak	29,8	0,8	46,4	1,2	-16,6	-0,3
76, Telekomunikazioak	5,9	0,0	52,2	17,3	-46,3	-17,3
77, Informatika- eta informazio-zerbitzuak	190,8	17,0	290,6	10,1	-99,8	6,9
78, Finantza-zerbitzuak	810,8	269,6	190,3	27,6	620,5	242,0
79, Aseguruak eta pentsio-planak	15,5	44,6	273,9	25,5	-258,3	19,0
80, Finantzetako laguntzaileak	40,2		130,1	4,1	-89,8	-4,1
81, Higiezin-zerbitzuak (errenta-zerga barne)	85,1		75,3	4,1	9,8	-4,1
82, Egoitzetako zerbitzu juridiko eta kontularitzakoak	556,2	328,6	109,8	83,6	446,4	245,0
83, Arkitektura, ingeniari eta entsegu teknikoa	531,2	56,9	111,1	38,2	420,1	18,7
84, Ikerketa eta garapena.	208,8	38,5	87,5	4,5	121,3	34,0
85, Publizitatea eta marketina	116,2	0,5	375,0	24,7	-258,8	-24,2
86 Bestelako zerbitzu profesionalak	32,0	6,5	109,1	9,0	-77,1	-2,4
87, Alokairu-zerbitzuak	40,3		568,5	13,4	-528,2	-13,4
88, Enplegu-zerbitzuak	17,9		29,7	0,0	-11,8	0,0
89, Bidaia-agentziak	0,0		39,0	33,8	-39,0	-33,8
90, Segurtasuna eta ikerketa	25,0		6,9	0,8	18,1	-0,8
91, Garbiketa-zerbitzuak	82,7		58,5	0,9	24,2	-0,9
92, Enpresei laguntzeko bestelako zerbitzuak	52,9		12,5	0,0	40,4	



93, Administrazio publikoa	0,0					
94, Hezkuntza	0,0					
95, Osasuna	0,0					
96, Gizarte-zerbitzuak	0,0					
97, Zerbitzu artistikoak eta ikuskizunak	49,1	7,4	82,4	5,1	-33,3	2,3
98, Kultura-zerbitzuak	8,4	0,6	40,4	2,3	-32,0	-1,6
99, Ausazko jokoak eta apustuak	0,0					
100, Kirol-jarduerak	15,9		11,8	0,4	4,2	-0,4
101, Aisialdiko jarduerak	17,7		12,2	0,2	5,5	-0,2
102, Jarduera asoziatiboak	0,0					
103, Gaien konponketa	0,0		6,9		-6,9	
104, Bestelako zerbitzu pertsonalak	4,7		5,7		-0,9	
105, Etxe-zerbitzua	0,0					
<b>ENPLEGU GUZTIAK OINARRIZKO PREZIOETAN</b>	<b>19723,9</b>	<b>21855,8</b>	<b>25778,5</b>	<b>16548,1</b>	<b>-6054,6</b>	<b>5307,7</b>
Egoiliarren erosketak lurraldetik kanpo			2877,6	1263,1		
EKOIZPEN GUZTIA OINARRIZKO PREZIOETAN			28656,0	17811,2		
<b>Eraikuntza eta zerbitzuak</b>	<b>5981,9</b>	<b>2248,8</b>	<b>7639,9</b>	<b>564,0</b>	<b>1658,0</b>	<b>1684,7</b>
<b>Nekazaritza eta industria</b>	<b>13742,0</b>	<b>19607,1</b>	<b>18138,5</b>	<b>15984,1</b>	<b>4396,5</b>	<b>3622,9</b>